

zer ote?

Zizurkilgo aisialdirako gida

L.G.: SS-0197/03

Iker Goenaga "...arteraino"

Urriak 3, 20:00etan



www.zizurkil.com

urria 2009 | 74. zenbakia | UDAZKENA

Aurrera Plaza 3 | 20159 ZIZURKIL

943 692495



www.zizurkil.com | 2009-2009

Ikastaroen hasiera:

(eskulanak, mantentze gimnasia, yoga, pilates, marrazketa, ...): urriko lehenengo astea.

urriak 3. IKER GOENAGA: "...arteraino" diska berriaren AURKEZPEN KONTZERTUA, 20'00etan Atxulondo Kultur Etxean. Sarrera: 5 euro.

Euskera

EUSKARA IKASTEKO DIRULAGUNTZAK:

Aurtengoan, Zizurkilgo Udalak, Villabonakoarekin batera, herrian bertan euskara ikasteko saiakera berezia egin du eta urrian sortu diren taldeak martxan jarriko dira. Diruz lagunduko dira ikastaro hauek: Zizurkilgo erroldatua dagoen edozein pertsonak ikastaro amaieran %85eko asistentzia bermatzen badu, matrikularen %75a (pertsonako 400 eurotako gehiengoarekin). Informazioa gehiago: Euskara Zerbitzuan, 943-692495 telefonoan.

MINTZALAGUNA:

Zure euskara maila hobetu nahi duzu astean behin ordubeteko saioa eginez? Modu lasaian, gehien gustatzen zaizuna eginez eta jende berria ezagutuz. Azaroan jarriko ditugu martxan hiru pertsonen osaturiko taldeak: bi euskaldun berri eta euskaldun zahar bat. Anima zaitetz! Euskara Zerbitzuan informazio gehiago.

TEODORO HERNANDORENA VIII. IPUIN LEHIAKETA:

Kalean dira dagoeneko oinarriak. Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute eta bost maila ezberdin antolatu dira adinen arabera (A. Maila: 6-8 urtekoena; B. Maila: 9-11 urtekoena; C. Maila: 12-13 urtekoena; D. Maila: 14-16 urtekoena eta E. Maila: 17 urtetik gorakoena). Lan bakoitzaren hiru kopia entregatu beharko dira azaroaren 20a bitartean, egun hau barne, eguerdiko 14'00ak baino lehenago Zizurkilgo Udala Bulegoetan. Oinarriak ere eskuragarri daude bertan.



urriak 18 Zizurkilgo Xii. Azoka Berezia



11'00-14'30 / 16'30-19'30:
Baserriko produktuak eta artisauak.
Autobusa doan
Bulandegi Bideko errotondan edo
Zubiaurretxotik Zizurkil Goiko Plazara
egun guztian zehar.

XII. azoka berezia 09

- 11:00: **Kantu jira.** Azoka euskal kantuz alaituko dute.
 - 12:00: **Haurrentzat jolasak** Udaletxe aurrealdean.
 - 12:15: **Ardo dastapen** komentatua euskaraz.
 - 13:00: **"Zizurkilgo Azoka Bereziko Saria"** Zizurkilgo janari postu hoberenari.
 - 14:30: **Txahal erre jatea** Zimiterioan. Txartelak salgai Zentroa, Pantxikane eta Atxulondo tabernetan. Prezioa: 15 euro.
 - 17:00: Haurrentzat **poniak** eta jolasak.
 - 18'00: **Ardo dastapen** komentatua gazteleraz.
- Arratsaldean zehar: **La Parrus Dixie Band.**

Zizurkil goia

urriak 24. Bestelakoak

GARAGARDO GAUA Zizurkil Goian.